



ZEGAMA KO UDALA

Zegaman, 2021eko apirilaren 23an

ZEGAMA KO UDALEKU IREKIAK / UDA KO HAUR TXOKOA 2021 HEZITZAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

2021eko ekainaren 21etik uztailaren 30era udako eskaintza antolatu du Zegama ko Udalak 2010 eta 2018 urte bitartean jaiotako haurrentzat. Honela, udalekuetan eta udako haur txokoa n hezitzaile gisa aritzeko deialdia luzatzen dizuegu.

Hezitzaileen kontratazioa 2021eko ekainaren 16tik 2021eko uztailaren 30era bitartekoa izango da. Bizi dugun egoera dela eta, unean uneko Osasun Ministeritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gomendio, araudi eta jarraibideetan oinarrituko da Udala hezitzaileen kontratazioa burutzeko.

Hezitzaileak hautatzeko garaian, hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko irizpideak** honakoak izango dira:

- 1) 18 urtetik gorakoak izatea edo 2021 urtean betetzea.
- 2) Zegaman erroldatua egotea.
- 3) Langabezian egotea (ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- 4) EGA edo HABE-ren 3.maila izatea. Eduki ezean, euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea baloratuko da.
- 5) Adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria.

Aurretik aipatuako baldintzak betetzen dituztenen artean, aukeraketa, lehentasun hauen arabera egingo da:

A TALDEA

Eusko Jaurlaritzak homologatutako aisialdiko zuzendari titulua edo begirale titulua izatea.

Talde honetako baldintzekin behar diren hautagai kopurua beteko ez balitz, hurrengo taldekoak hartuko lirateke, hurrenez hurren.

B TALDEA

Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea edo ikasketa hauek burutzen aritzea.

D TALDEA

Aurretik aipatutako hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak ez izatea.

Oharra: hala balegokio, talde bakoitzeko aukeraketa, zozketa bidez egingo da.



ZEGAMA KO UDALA

➤ Hezitzaileen **izen-ematea**:

Epea: 2021eko maiatzak 3tik 12ra (biak barne).

Izen-ematea: Zegamako Udal Liburutegian 16:30etatik 19:30etara.

Aurkeztu beharrekoak: curriculum-a, titulu eta agirien kopiak, langabezian egotearen ziurtagiria (Lanbide), adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria, NAN-aren kopia, osasun txartelaren kopia.

Aukeratuak izan diren hautagaien zerrenda **maiatzak 18**, asteartea, jarriko da jendaurrean Udaletxean eguerdiko 14:00etarako. **Zozketa, behar balitzateke, maiatzak 20an 19:00etan** egingo da Udaletxean eta **edonork etorri ahal izango du.**

ZEGAMA. TIEMPO LIBRE 2021 CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE EDUCADORES/AS


Para la selección de educadores/as serán imprescindibles los siguientes criterios:

- 1) Tener 18 años o cumplir en el año 2021.
- 2) Estar empadronado en Zegama.
- 3) Estar en desempleo (se requiere el certificado de desempleo).
- 4) Poseer el título de EGA o el 3. nivel de HABE. En caso de no poseer dichos títulos, se valorará un nivel alto de conocimiento y manejo del euskera.
- 5) Certificado de delitos de naturaleza sexual para trabajar con menores.

Para más información, los/las interesados/as deberán acudir a la Biblioteca.

Besterik gabe, adeitasunez

ALKATEA



Joseba Izagirre Arozena